

PRENTSA OHARRA: 2025.11.30

Jon Arretxek FIL Guadalajarara eramango du bere unibertso literarioa Etxepare Euskal Institutuaren eskutik

- Idazleak Touré detektibearen saga aurkeztu, eta azokako hainbat jardueratan hartuko du parte abenduaren 1etik 3ra**
- 2011. urtetik Etxeparek euskal literaturaren presentzia sustatzen du panorama iberoamerikarreko hitzordu nagusi honetan**

Donostia, 2025eko azaroaren 30a- Jon Arretxe idazleak Guadalajarako Nazioarteko Liburu Azokan (FIL) hartuko du parte egunotan; liburugintzaren alorreko ekitaldi garrantzitsuenetakoa eta iberoamerikar letren hitzordu nagusia. Urtero ehunka idazle eta milaka profesional biltzen dituen azoka hau azaroaren 30etaik abenduaren 7ra egingo da Mexikoko hiri horretan. Aurtengo edizioan, Etxepare Euskal Institutuaren laguntzaz, Jon Arretxek bere lana aurkeztu, eta programa ofizialeko hainbat jardueratan hartuko du parte.

Abenduaren 1ean, astelehena, egileak Touré detektibea protagonista duen saga ezaguna aurkeztuko du; hamaika liburuk osatzen dute saila, eta arrakasta handia izan dute bai kritikaren bai irakurleen artean. Mahamoud Touré afrikar etorkin paperik gabea Bilboko San Frantzisko auzoan bizi da, eta aurrera egiteko iragarle, abeslari edota detektibe lanak burutzen ditu. Begirada kritikoarekin, umorearekin eta gizatasun handiz, pertsonaiak bazterkeria, arrazakeria, indarkeria, prekarietatea edo polizia-ustelkeriak zeharkatutako istorioei egiten die aurre.

Abenduaren 2an, Arretxek ikasleei zuzendutako topaketa batean parte hartuko du, 'FIL Joven: Ecos de la FIL' programaren baitan. Abenduaren 3an, berriz, 'La ruta de una crónica de viaje' mahai-inguruan izango da, Joseph Zárate (Peru) eta Ignacio

Piedrahita (Kolonbia) idazleekin batera. Mintzaldi horretan, egileek hausnartuko dute bidai-literaturak nola ahalbidetzen duen urruneko lurraldeak eta bidean bizi izandako esperientziak kontatzea, eta nola eraldatzen duen idazlearen eta irakurlearen begirada. Halaber, beste tokiei buruz idazteak dakartzan erronka etikoak, narratiboak eta pertsonalak jorratuko dituzte.

Egileari buruz

1963an Basaurin (Bizkaia) jaioa, eta 2004az geroztik Arbizuko (Nafarroa) bizilaguna, Jon Arretxek bidai-literaturarekin hasi zuen bere ibilbidea, '7 kolore', 'Tubabu' edo 'Oroituz' bezalako lanekin. Azken urteetan, euskal nobela beltzaren izen propio bihurtu da, 'Xahmaran', 'Tangerreko ametsak' edo 'Arrutiren banda' bezalako eleberriekin, eta bereziki Touré detektibearen sagarekin. Bere ibilbidean haur eta gazte literatura ere jorratu du, 'Harresi handirantz' edo 'Lurraren taupadak' liburuak kasu.

Euskal liburugintza-sektorea FIlEn

Jon Arretxeren parte-hartzea, euskal literaturaren proiektzioa eremu iberoamerikarrean sustatzeko, Etxepare Euskal Institutuak 2011tik FIlEn egiten duen lanaren testuinguruan kokatzen da. Azokan, gainera, euskal liburugintza sektoreak stand propioa izango du Basque. Books. izenpean. Etxepare Euskal Institutuak, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika sailarekin eta liburugintzaren sektorearekin lankidetzan sustatutako egitasmoa da Basque. Books., nazioarteko azoka, jaialdi eta topagune profesionaletan euskal liburugintza sektorearen presentzia indartzea eta euskal literaturaren zirkulazioa, itzulpena, ikusgarritasuna eta proiektzioa sendotzea helburu dituen.

Bestetik, Euskal Irudigileak elkarteak ere azokan izango da Instituturen babesarekin, bere nazioarteko agenda garatzeko eta sektorearen kanpo posizionamendua indartzeko.

Azkenik, nabarmentzekoa da urtea amaitu aurreko hilabete hauetan beste hainbat euskal idazle eta sortzailek ere literaturaren alorreko topagune garrantzitsuetan hartu dutela parte Etxepare Euskal Institutuaren laguntzaz: Bruselako Transpoesie jaialdian

(Iñigo Astiz), Madrilgo Festival Eñen (Katixa Agirre, Sara Fantova, Beñat Sarasola, Miren Agur Meabe, Itxaro Borda, Jose Mari Goenaga, Telmo Irureta, Uxue Alberdi eta Tulsa), Miami Book Fair-en (Leire Bilbao) eta Bolognako Unibertsitatean (Iban Zaldúa), besteak beste.

FIL Guadalajara

FIL Guadalajarak 39. edizioa du aurtengoa, Bartzelona Ohorezko Gonbidatu duelarik. Iberoamerika osoko erreferente nagusietako bat da, eta bertan parte hartuko dute 34 herrialdetako 800 idazle baino gehiagok, 2.800dik gora argitaletzek eta 900.000 inguru bisitarik. 3.000 jarduera baino gehiago dituen egitarau zabalarekin, FIL ezinbesteko topagunea da liburugintzaren sektorean. Literaturaz gain, pentsamenduari, arteari, zientziari, kulturari eta egungo eztabaida intelektualei eskainitako tarteak ere baditu.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da, eta bere eginkizuna da euskara, euskal kultura eta euskal sorkuntza nazioartean proiektatzea, eta hauen bidez beste eskualde, herrialde eta kulturekin harreman sendo eta iraunkorrak eraikitzea. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, sortzaileen, artisten eta kultura eta sormen industrietako profesionalen mugikortasuna bultzatzen du, eta euskal ikasketak sustatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko lankidetzak sustatzen du, bai kultura arloan bai unibertsitatearen esparruan.

Info +

Komunikazio saila
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus